

## BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

### Iraintzaileak aholkulari



#### I

Hara non dauden zelaian  
haritza ta lizarra,  
goian dutela izarra,  
entzunaz Jaurlaritzako  
haizearen didarra: (bis)  
“Lizardi, larre hizkuntzari  
badatorkio indarra;  
aizak, Aresti zaharra,  
euskara salbu duk eta  
moztu ezak bizarra!”. (bis)

#### II

“Badiat nik albiste bat  
zuentzako gordea,  
astintzeko hor behea;  
muinoz-muino Orhi, Aizkorri,  
Urbasa ta Gorbea. (bis)  
Diotenez gaur arteko  
asko baino hobea,  
nahiz batzuk gogor beha,  
izango da Euskararen  
Aholku Batzordea”. (bis)

#### III

Gasteiztik diote “Euskara  
bizi-bizirik bego;  
bihotz-mihietan bero.  
hala izan dadin martxan  
gabiltza egunero”. (bis)  
Hala ere ho(r)ien hitza  
beteko denik gero,  
nork lezake espero?  
Otsoei ardi larruak  
kentzen hasi ezker... (bis)

#### IV

Euskal Herrian elkarte,  
irradi, aldizkari  
ta kultur-talde ugari,  
diru gabe utzitako  
hamaika agintari, (bis)  
mesprestxuz diozuenak  
eraso euskarari,  
sailburu, lehendakari...  
Nola izan nahi duzue  
gure aholkulari? (bis)

#### V

Badakit kide guztiak  
berdinak ez direla,  
onak geunden bestela!  
Jaurlaritzak markatzen du  
hiruko erregela: (bis)  
Batzuentzat batzordea,  
besteentzat kartzela.  
Txarrena da horrela  
gauza absurduetara  
ohitzen ari garela. (bis)

#### VI

Nahiz euskara eztenkatzen  
ari den Jaurlaritza,  
ta ez mintzea den gaitza,  
euskaldunok geure ahotsa  
jaso nahian gabiltza. (bis)  
Beraz zuk, politikari,  
baduzu zer non mintza,  
hartu ezazu hitza!  
Ala hizkuntzaren defentsa  
ez al da herrigintza? (bis)

DOINUA: “Zamorako sugintza”.



Bidali zure sortak [bertsoak@argia.com](mailto:bertsoak@argia.com) helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.